

Adjektiboen sei erabilera oker

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

*Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, **adjektiboa da** izena nolakotasunean edo zehaztasunean mugatzen duen hitza.*

Adjektiboek edukiak zehazteko edo aberasteko aukera ematen digute, baina ziurtatu behar dugu ondo erabiltzen ditugula.





**Saihestu egin behar
ditugu, adibidez,
adjektiboen sei erabilera
oker hauek...**

Erdal adjektiboa
maileguan hartzen
denean, izenaren
ezkerrean jartzea



- * **sozial** arazo
- * **sindikal** arlo
- * **burokratiko** arazo
- * **okupazio** tailer
- * **orbital** hegaldi
- * **jurisdikzio** gauzatze
- * **sekuentzial** egiaztapen

arazo **sozial**
arlo **sindikal**
arazo **burokratiko**
tailer **okupazional**
hegaldi **orbital**
gauzatze **jurisdikzional**
egiaztapen **sekuentzial**

Ezkerraldean, *-dun* eta *-(t)ar*
atzizkiekin osaturiko adjektiboak
baino ezin dira ezarri.

Horiek eskuinean ere ezar
daitezke, eta, hain zuzen ere, hori
da gomendioa *-dun* atzizkiarentzat:

agintari **eskuduna**



Horiek emateko, erdal adjektiboa maileguan hartu beharrean,
euskal egituraren arabera ordainak erabil ditzakegu:

***sozial** arazo

***sindikal** arlo

***burokratiko** arazo

***jurisdikzio** gauzatze

***merkatal** gune

***elektroniko** tresna

***monetal** politika

***sindikal** batasun

gizarte-arazo

sindikatu-arlo

burokrazia-arazo

eskumeneko gauzatze

merkataritza-gunea

elektronika-tresna, **elektronikazko** tresna

moneta-politika, **diru**-politika

sindikatu-batasun, **sindikatu**en batasun



Kolore bat izenarekin
batera ematean,
kolore hitza izenaren
ezkerrean jartzea



*Jarraitu **laranja koloreko** marrari.

Jarraitu **kolore laranjako** marrari.
Jarraitu marra **laranjari**.

**–ar atzizkia modu
desegokian gehitzea**



3

- *belgiar
- *europear
- *egipziar
- *israeliar
- *kanadiar
- *katalandar
- *kuwaitiar
- *pakistaniar
- *vietnamiar

belgikar
europar
egiptoar
israeldar
kanadar
katalan
kuwaitar
pakistandar
vietnamdar

Kontuz halako hitz-elkarketekin:



*batasun **lurraldetar**
***auzitegitar** mediku

lurralde-batasun
auzitegi-mediku, **auzitegiko** mediku



Kontuz jentilizioen erabilera honekin:



***eibartar** kaleak
***bilbotar** auzoa



Eibarko kaleak
Bilboko auzoa

Generoa bereiztea

Adjektiboaren forma bera erabiltzen da maskulinoan zein femeninoan, euskaraz ez baitago genero gramatikalik izenean.

- *musika **klasika**
- *perpau **kontzesiba**
- ***nerbiosa** jarri



musika **klasikoa**
perpau **kontzesiboa**
urduri/nerbiosoa jarri

Hala ere, badira genero-aldaera hitz-bikoteka markatzen dituzten adjektibo batzuk:

<i>Emakumezkoei dagokie:</i>	<i>Generoz markatu gabea</i>	<i>Gizonezkoei dagokie</i>
gajo	gaixo	gizajo, gizagaixo
tuntun	ergel	tonto
parrandera	festazale	parrandero
baldraska	baldres	
pertxenta	lirain	
	indartsu	
	zalapartari	morrosko
		zalapartero
		bizardo

Adjektiboak
mailakatzeko,
oso erabili ordez,
-egi erabiltzea



- *Ez naiz **arduratsuegia**.
- *Ez dirudi **zaharregia**.

Ez naiz **oso arduratsua**.
Ez dirudi **oso zaharra**.

Hitz-elkarketako
lehen osagaiari
adjektiboa
eransten bazaio,
elkarketa ez
desegitea



*emakume **enpresari** bilera
*bazkide **berri** zerrenda

emakume **enpresarien** bilera
bazkide **berrien** zerrenda

Hala ere, badira adjektiboa duten elkarketa egoki batzuk;
mota hitza dutenak, esaterako:

*perpaus **subordinatuen** motak

*jarduera **osagarrien** motak



perpaus **subordinatu** motak

jarduera **osagarri** motak

Komunikazioaren ikuspegitik, adjektiboen erabilera egokiak aniztasuna, zehaztasuna eta aberastasuna ekartzen ditu.

